

## Bota Bertsoa!

# Sagardorik ezari kantari, sagardozeale zein bertsolari

Seigarrenez antolatu du Bota Bertsoa! bertso paperen lehiaketa, Dobera Euskara Elkarreak, Iraulio Panttalone Bertso Kabiyaekin elkarlanean. 'Sagardorik ez balego?' da gaia, eta 22 sagardotegitan hartu daiteke parte, martxoaren 22ra arte. Sari ugari izango dira.

## URUMEA DOBERA EUSKARA ELKARTEA

Beste urte batez, txotx denboraldiari hutsik egin gabe, sagardoa eta bertsoaren arteko lotura ekarri du bailarara, Dobera Euskara Elkarreak. Seigarrenez antolatu du Bota Bertsoa! bertso paperen lehiaketa, Iraulio Panttalone Bertso Kabiyaekin elkarlanean, eta aurtengoan, honakoa da kanturako jarri duten gaia: *Sagardorik ez balego?*

Hortaz, sagardo faltari kantari jarriko dituzte aurten, bertsolariak eta sagardozealeak. Horrekin, berreskuratu nahi dute «bertsoaren eta sagardotegiaren arteko harreman estua». Eta era berean, sagardotegietan giro euskalduna piztu nahi dute Doberak eta Hernaniko bertso eskolak, euskeraren erabileran eraginez; eta euskal kultura ere sustatu eta indartu nahi dute.

Zentzu horretan, nabarmendu dute «oso balorazio positiboa» egiten dutela sagardotegiek urtero: «egitasmoari esker, oso giro polita sortzen omen da sagardotegietan», azaldu dute.

### 22 sagardotegitan aukera, lehiaketan parte hartzeko

Lehiaketan parte hartzeko, sagardotegietan egongo dira kuxak; guztira, Hernani, Astigarraga eta Urrietako 22 sagardotegitan. Datorren astetik aurrera egongo dira, eta ordutik hasita, martxoaren 22ra arte hartu ahal izango da parte.

Horretarako, paperean idatzi behar da bertsoa, nahi den doinu eta neurrian; eta izen-abizenak eta telefonoa jarrita, sagardotegian dagoen kutxan sartu. Bestela, emailez ere bidali daitezke bertsoak, helbide honetara: [dobera@dobera.eus](mailto:dobera@dobera.eus).



Joan den urteko Bota Bertsoa! lehiaketa saritutako hiru lagun, beraien bertsoa kantatzen, sari banaketan.

### Mota guztietako sariak, partehartzaileen artean

Jasotako bertso guztien artean, bertso eskolako kideek aukeratu dute zein izango diren sarituak. Baina mota guztietakoak izango dira sariak, aurten ere, aspektu ezberdinak baloratuz: bertso sakonena, umoretsuena, poetikoena, teknikoena,

morbosoena... Hortaz, sari ugari banatuko dituzte aurten ere; sagardogileek emandako opariak, hain justu: otorduak, sagardo kaxak...

Behin sarituak erabakita, ekitaldia egingo dute, sariak banatu eta bertsoen emanaldia egiteko. Apirilaren 3an egingo dute hori, eta ziur saltsa eta

umorea izango dituela ekitaldiak ere. Izan ere, saritutako bertsoak kantatzera igotzen dira taula gainera, egileak.

Joan den urtean, 130 bertso baino gehiago izan ziren lehiaketan, *Aurten? Iaz baino hobea* gaia jarrita. Iazkoa baino hobea izango ote da aurtengoa, bertso gehiago jasota? **K**

## SAGARDORIK EZ BALEGO?

# Bota bertsoa!



## VI. BERTSO PAPEREN LEHIAKETA TXIKIA

### Gaia SAGARDORIK EZ BALEGO?

#### Parte hartzeko

1. Paperean bertsoa idatzi (nahi den doinuan eta neurrian)
2. Izen-abizenak eta telefonoa jarri
3. Kutxatxoan sartu papera edo bidali Doberako e-postara: [dobera@dobera.eus](mailto:dobera@dobera.eus)
4. Epea: martxoak 22

#### Sariak

Liburuak/ipuinak, otorduak, hainbat kaxa sagardo...

#### Bertsoen emanaldia eta sari banaketa

Apirilaren 3ean

#### Antolatzaileak

Iraulio Panttalone Bertso Kabiya  
Dobera Euskara Elkarrea

